

*Ipuin bat opari.  
Nola aukeratu  
liburuak?*

# TERTULIA DIALOGIKO LITERARIOAK

## ZER DIRA TERTULIA DIALOGIKOAK?

Esanahiaren eta ezagutzaren eraikuntza kolektiboa dira, tertulietan parte hartzen duten ikasle guztiekin izandako elkarrizketan oinarrituta.

Tertulia dialogikoen funtzionamendua Ikaskuntza Dialogikoaren 7 printzipioetan oinarritzen da, eta gizadiak hainbat arlotan egindako sorkuntzarik onenetan oinarrituta garatzen dira: literaturan, arten, musikan, zientzian...

Tertulia edo solasaldi dialogikoen bidez, kultura klasiko unibertsalera eta gizateriak denboran zehar metatutako ezagutza zientifikora ikasleak zuzenean hurbiltzea bultzatzen da, adina, generoa, kultura edo gaitasuna bereizi gabe.

Habermasek eta beste autore askok planteatu duten bezala, etikan eta zientzian, adostasuna ezinbestekoa da. Hala ere, estetikan ez da horrela. Matematikan, fisikan, kimikan, biologian eta abarretan oso argi dago zein diren ezagutza baliiodunak. Beraz, eremu horietako Tertulia Dialogikoak baliozko gisa adostu diren ezagutza horiei buruzkoak egiten dira.

Literaturan eta arteetan oro har, bizitza sozialerako ez da adostasun estetikorik behar, norbaitek nahiago du Verdi eta beste pertsona batek Beethoven eta ezin hobeto bizi daiteke elkarrekin. Hala ere, beste batzuk baino obra hobek direla adostasuna dago, adibidez, Shakespeareren liburuak, Odisea edo Ramayana.




# TERTULIA DIALOGIKO LITERARIOAK

## NOLA ANTOLATZEN DIRA?

Tertulia saioaren aurretik, bakoitzak, landuko duten testua lantzen du, irakurriz eta aurrez zehazturiko irizpideen arabera atal bat hautatuz.

Saio bakoitzean, parte hartzen duten pertsona guztiek solasaldi dialogikoan lantzen ari direnari buruzko interpretazioa azaltzen dute (literatura-testu bat, artelan bat, musika-pieza bat, ekarpen matematiko bat, etab.). Horrela, gainerakoei zer eragin dion adierazten die, zergatik eman dion arreta azaltzen du, aurreko solasaldietan izandako elkarrizketekin lotzen du, horri buruzko hausnarketa kritikoa egiten du, eta abar.



Elkarrizketaren eta ikasle bakoitzaren ekarpenen bidez, truke aberasgarria sortzen da, solasaldiaren gaia sakontzeko eta, aldi berean, ezagutza berriak erakitzea sustatzeko. Saio bakoitzean, parte-hartzaile batek bere gain hartzen du moderatzailearen rola, ikasle guztien artean berdintasunezko parte-hartzea bultzatzeko.

## ETA LITERATURA TERTULIA DIALOGIKOAK?

Solasaldi dialogikoa jarduera hezitzaile eta kulturala da, emaitza ezin sendoagoak ematen dituena: erabiltzen den metodologiari esker, parte hartzaileek literatura klasiko unibertsaleko obrak irakurriz disfrutatzea lortzen da.

**Oro har, Literatura Unibertsaleko klasikoak** erabiliko dira. Izan ere, hauen bitartez ezagutuko baitituzte ikasleek giza balore unibertsalak; hauen gaineko eztabaida aberatsa sortuko da, ikaste prozesua bultzatuz eta indartuz. Gainera, testuinguru historikoa hobeto ulertzen lagunduko digute, baita hiztegia eta hizkuntza aberastu ere.

## ZEIN ONURA DITU?

- Irakurtzeko gaitasuna hobetzea
- Ahozko adierazpena garatzea
- Irakurtzeko ohitura bultzatzea
- Irakurketaren eta Literaturaren alde ludikoa deskubritzea
- Parte hartzaileengan entzuteko prestasuna sortzea
- Ikasleen arteko elkarrizketa hobetzea, baita ikasle eta irakasleen artekoa ere
- Kritikotasuna eta elkartasuna sustatzea
- Autoestimua handitzea
- Idatzizko adierazpena indartzea eta hobetzea
- Ahozko komunikazioaren bitartez sortzen diren ezagutzei zentzua ematea

# KLASIKOEN ZERRENDA

## EUSKARAZ

### HAUR HEZKUNTZARAKO ETA LEHEN HEZKUNTZAKO HASIERAKO ZIKLORAKO:

- ***Ipuintxo bat gauero I, II eta betiko alegiak.*** Bilduma honetan hainbat ipuin daude: ***Aladino; Sinbad marinela; Ali Baba eta 40 lapurrak; Alizia lurralde miresgarrian; Enperadorearen jantzi berria; Pinotxo. Printze zorionsua. Urrezko arrautzak erruten zituen oiloa. Landako sagua eta hiriko sagua. Berunezko soldadutxo. Bi untxiak; Erbia eta dordoka...*** ALAIA argitaletxea. (lehen Aizkorri)
- ***Aladin eta kriseilu miresgarria.*** IBAIZABAL argitaletxea.
- ***Artzaina eta otsoa; Hansel eta Gretel*** S.M. argitaletxea.
- ***Edurne Zuri. Peter Pan.*** Tarttalo

### LH BIGARREN ZIKLORAKO:

- ***William Shakespeareren lanik onenak.*** TTARTALO argitaletxea.
- ***Jules Verneren abenturarik onenak.*** TTARTALO argitaletxea.
- ***Rudyard Kipling. Oihaneko liburua.*** TTARTALO argitaletxea.
- ***Aintzineko Greziako Ipuintxo bat gauero.*** AIZKORRI argitaletxea.
- ***On Kixote.*** AIZKORRI argitaletxea.
- Charles Dickens ***Mamuen Gabon-gaua.*** TANTAIA. VICENS-VIVES argitaletxea.
- Oscar Wilde: ***Erraldoi berekoia eta beste ipuin batzuk.*** TANTAIA. VICENS-VIVES
- Esoporen ***alegiak.*** TANTAIA. VICENS-VIVES argitaletxea.
- Jules Verne. ***Munduari itzulia 80 egunetan.*** ZUBIA-SANTILLANA

### LH HIRUGARREN ZIKLORAKO ETA DBH LEHEN ZIKLORAKO:

- Anonimoa. ***Konkorduna eta «Mila eta bat gau»*** liburuko beste ipuin batzuk TANTAIA. VICENS-VIVES argitaletxea.
- Anonimoa. ***Mila eta bat gau.*** EREIN argitaletxea.
- Charles Dickens. ***Oliver Twist.*** TANTAIA. VICENS-VIVES argitaletxea.
- Charles Dickens: ***Gabon-kanta.*** TANTAIA. VICENS-VIVES argitaletxea.
- Daniel Defoe. ***Robinson Crusoe*** TANTAIA. VICENS-VIVES argitaletxea.
- Jonathan Swift. ***Gulliver-en bidaiak.*** TANTAIA. VICENS-VIVES argitaletxea.
- Jules Verne. ***Mikel Strogoff.*** TANTAIA. VICENS-VIVES argitaletxea.
- Jules Verne. ***Hogei mila legoako bidaia itsaspetik.*** ANAYA-ARITZA argitaletxea.
- Lewis, C. ***Alicia herrialde miresgarrian.*** PAMIELA argitaletxea.
- Maria Angelidouen ***Greziar mitoak.*** TANTAIA. VICENS-VIVES argitaletxea.
- Mark Twain ***Tom Sawyer.*** Tantaia/Vicens vives
- Anonimoa. ***Simbad marinela.***-Nicolette Desclée

# KLASIKOEN ZERRENDA

## GAZTELERAZ

---

### HHrako

- El sastrecillo valiente. LIBSA (gaztelaniaz) eta hain bat ipuin: Andersen, Los hermanos Grim, Fábulas de Esopo...

### LHrako:

- Edebe adaptaciones para niños: La Odisea contada a los niños; La Eneida; Tom Sawyer; Don Quijote; Platero y yo; El lazarillo de Tormes...

### LH 3. ZIKLORAKO ETA DBH 1. ZIKLORAKO

- La cabaña del Tío Tom.

### Vicens-Vives colección Cucaña.

- El jorobado y otros cuentos de «Las mil y una noches»
- Las aventuras de Mowgli Rudyard Kipling
- La Reina de las Nieves H. C. Andersen
- La Bella y la Bestia y otros cuentos maravillosos
- Simbad el marino
- Robinson Crusoe Daniel Defoe
- El jorobado de Notre Dame Victor Hugo
- Fábulas de Esopo
- Cuento de Navidad Charles Dickens
- Don Quijote Miguel de Cervantes
- Estampas de Platero y yo Juan Ramón Jiménez
- Los viajes de Gulliver Jonathan Swift
- Oliver Twist Charles Dickens
- La leyenda del Cid Agustín Sánchez Aguilar.
- Miguel Strogoff Jules Verne
- Mitos griegos Maria Angelidou
- Historia de dos ciudades Charles Dickens
- Corazón alado Antología poética Miguel Hernández
- Tom Sawyer Mark Twain
- Grandes esperanzas Charles Dickens
- El lazarillo de Tormes

# DORLETA KORTAZARREN Proposamena

## 0-2 URTE

- Kulun kuttunak. Yolanda Arrieta
- Arrautza. Elena Odriozola
- Kili kili. Emile Jadoul
- Zapata. Antonio Rubio, Xabier Olaso
- Bibolina. Antonio Rubio, Xabier Olaso
- Barraskiloa ote da? Guido Van Genechten
- Igela ote da? Guido Van Genechten
- Eskularru galdua. Neguko ipuintxo bat. Sharon Harmer
- Malkoak. Sybille Delacroix

## 2-4 URTE

- Badakit bakarrik janzten. Elena Odriozola
- Din Dilin Dalan. Pello Añorga
- Kuku. Giuliano Ferri
- Azeri, zer berri?. Atelier Saje
- Galdu xamar. Chris Haughton
- Goazen lotara!. Pierre Delye / Cecile Hudrisier
- Ez da ahotsik behar. Armando Quintero / Marco Soma
- Askaria parkean. Pablo Albo / Cecilia Moreno
- Baso ilun eta sakonean. Delphine Bournay
- Maite dut. Lorena Martinez Oronoz
- Bihotz bihotzetik. Emile Jadoul
- Nire etxea. Emile Jadoul
- Otsoa dator. Emile Jadoul
- Malkoak. Sibylle Delacroix
- Urtaroen erritmoan dantzan. Claudia Bielinsky
- Nola egiten duzu lo?. Olivia Cosneau

### Klasikoak:

- Urdin txiki eta hori txiki. Leo Lionni
- Beldar txiki jatuna. Eric Carle
- Grufaloa. Julia Donaldson / Axel Scheffler
- Elmer. David McKee
- Munduko etxerik handiena. Leo Lionni

## 4-6 URTE

### Bildumak:

- Sasi guztien gainetik. Itziar Zubizarreta / Elena Odriozola

### Klasikoak:

- Winnie Pooh. A.A. Milne
- Zesar eta Ernestina (Ernesto eta Zelestina). Gabrielle Vincent /
- Sagu kontuak. Arnold Lobel
- Osaba elefante. Arnold Lobel
- Igel eta Ugel. Arnold Lobel
- Hartz txiki. Else Holemlund Minarik / Maurice Sendak
- Gaueko sukaldean. Maurice Sendak
- Munstroak bizi diren lekua. Maurice Sendak
- Frederick. Leo Lionni
- Igeritz. Leo Lionni
- Hartz eta ehizatza goaz. Michael Rosen / Helen Oxenbury
- Liburu bat. Hervé Tullet
- Angelika Milapatriaken patrikak. Quentin Blake
- Ipuinak nahasten. Gianni Rodari / Alessandro Sana
- Arturo eta Klementina. Adela Turin / Nella Bosnia
- Bost minutuko lasaialdia. Jill Murphy
- Hazi txiki. Pello Añorga / Jokin Mitxelena
- Euria ari duenean. Leire Salaberria
- Abezedario Titirijario. Juan Kruz Igerabide / Elena Laura
- Animateletrak. Antton Kazabon / Jokin Mitxelena
- Oh! Josse Goffin
- Aurretik. Ondoren. Anne Margot Ramstein / Matthias Aregi

# DORLETA KORTAZARREN Proposamena

## 4-6 URTE

- Zer behar da? Gianni Rodari / Silvia Bonanni
- Ikaragarri aspergarria. Raquel Blazquez
- Siete ratones ciegos. Ed Young
- Kokoriko. Marisa Ramos
- Pilu-Pilu. Susanna Isern / Katharina Sieg
- Unerik onena. Susanna Isern / Marco Soma
- Zopak erre egiten du. Pablo Albo
- Lehoiaren maskara. Margarita del Mazo / Paloma Valdivia
- Azazkalo. Margarita del Mazo / Charlotte Pardi
- Nire hartz handia, nire hartz txikia eta ni neu. Margarita del Mazo / Rocío Bonilla
- Eskularru galdua. Neguko ipuintxo bat. Sharon Harmer
- Pirata ausarta. Ricardo Alcántara / Gusti
- Badauzkat nire zuloxoan. Alaine Agirre / Irrimarra
- Arkakuso txakur bila. Will Mabbitt / Nathan Reed
- A ze erratz fiña, piruliña. Julia Donaldson / Axel Scheffer
- Bernabe munduaren amaierara doa. Guilles Bizouerne / Béatrice Rodriguez
- Eskeleto barregarriak. Janet Ahlberg / Allan Ahlberg
- Ezetz harrapatu. Hector Dexet
- Arrautzan. Emma Lidia Squillari
- Bat baino ez da!. Tracey Corderoy / Tony Neal
- Zer behar da?. Gianni Rodari / Silvia Bonanni
- Arraultza bat txitatu zuen ardia. Daniela Kulot
- Bisitari bitxia. Gracia Iglesias / Vicente Cruz
- Krokodilo txikia, jirafa altua eta neurri kontuak. Daniela Kulot
- Bidaiari txikiak. Chloe du Colombier
- Errekastoa. Françoise Laurent
- Irudizko lerroa. Fernando P. Hernando
- Txori baten portreta egiteko. Jacques Prevert

## Zerbaiterako:

- Haserre gorria. Mireille d'Alancé
- Eta untxiak entzun. Cori Doerfeld
- Putz egin eta ikusiko duzu. Karmele Jai / Mikel Casal
- Hitz atseginak. Alice Le Henand
- Ez da kaxa bat. Antoinette Portis
- Oroitzapenen zuhaitza. Britta Teckentrup
- Joan den eguneko ipuina. Roberto Aliaga / Noemi Villamuza
- Paulatxo. Amelie Javaux / Annick Masson
- Hau neure zuhaitza da. Olivier Tallec
- Goikoak eta behekoak. Paloma Valdivia
- Hamar hatz ttipi eta hamar behatz ttipi. Mem Fox / Helen Oxenbury

## 6-8 URTE

### Bildumak:

- Euskal Herrietako ipuinak. Juan Kruz Igerabide / Elena Odriozola
- Xomorropoemak eta beste piztia batzuk. Leire Bilbao / Maite Mutuberria
- Urrezko giltza. Patxi Zubizarreta / Jokin Mitxelena
- Egizu lo. Hainbat
- Begira begira. Hainbat
- Mintzo naiz isilik. Juan Kruz Igerabide (asmakizunak)
- Auskalo! Xabier Olaso (asmakizunak)
- Itsasoa etxe barruan. Harkaitz Cano / Mikel Valverde
- Mari Xor. Yolanda Arrieta
- Txomin ipurdi. Joxe Arratibel / Antton Olariaga
- Arbola eskuzabala. Shel Silverstein
- Ipuinen haria. Ferida Wolff / Harreit May Savitz
- Kezkamuxelak. Anthony Browne
- Urdaburutarrak. Anthony Browne

# DORLETA KORTAZARREN Proposamena

- Azken gutuna. Antonis Papatheodoulou
- Zoom. Istvan Banyai
- Nire katua munduko kaikuena. Gilles Bachelet
- Nola dastatu ilargia? Michael Grejniec
- Biga. Romain Pujol / Vincent Caut
- Tartalo izan nahi zuen laukia. Violeta Monreal
- Oihana. Marina Gibert
- Kandinga lehoia. Boniface Ofogo / Elisa Arguilé
- Casi. Peter H. Reynolds
- El punto. Peter H. Reynolds
- Yo quiero mi sombrero. Jon Klassen
- Este no es mi bombín. Jon Klassen
- Muelles. Txabi Arnal / Joao Vaz de Carvalho
- Malacatú. Maria Pascual de la Torre
- ¿Cómo te como? Rafa Ordoñez / Rafa Antón
- Petit, el monstruo. Isol
- La ensalada de la bruja. Isabelle Wlodarczyk
- El secreto. Eric Battut
- Madrechillona. Jutta Bauer
- La reina de los colores. Jutta Bauer
- Martin. Elaine Agirre
- Krokodilo txikia, jirafa altua eta neurri kontuak. Daniela Kulot
- El cazo de Lorenzo. Isabelle Carrier
- Hablo como el río. Jordan Scott / Sydney Smith
- Goikoak eta behekoak. Paloma Valdivia
- Hamar hatz ttipi eta hamar behatz ttipi. Mem Fox / Helen Oxenbury
- Oroitzapenen zuhaitza. Britta Teckentrup
- Joan den eguneko ipuina. Roberto Aliaga / Noemi Villamuza
- Paulatxo. Amelie Javaux / Annick Masson
- ¿A dónde vamos cuando desaparecemos? Isabel Minhos Martins
- No te vayas. Gabriela Keselman

## ZERBAITERAKO:

- Oliver Button poxpolin bat da. Tomie de Paola
- Titirimari. Xerardo Quintiá / Maurizio AC Quarello
- Hamaika andere ausart. Oli / Helle Thomassen
- Mamá puso un huevo. Babette Cole
- Kili Kontuak. Hainbat
- Ohean mendi artean. Maricuela / Sonia Wimmer
- Sirenas. Jessica Love
- Yo voy conmigo. Raquel Díaz Reguera
- Ni un besito a la fuerza. Marion Mebes / Lydia Sandrock
- Niño niña. Joana Estrela
- Tximeleta belarriak. Luisa Aguilar / André Neves



# DORLETA KORTAZARREN Proposamena

## TEORIA

- Bularretik mintzora. Juan Kruz Igerabide
- Del pecho a la palabra. Juan Kruz Igerabide
- La bruja debe morir. Sheldon Cashdan

## BILDUMAK - IRAKURKETA PARTEKATUA

- Euskal Herrietako ipuinak. Juan Kruz Igerabide / Elena Odriozola
- Urrezko giltza. Patxi Zubizarreta / Jokin Mitxelena
- Egizu lo. Hainbat
- Begira begira. Hainbat
- Cuentos de los Hermanos Grimm para todas las edades. Philip Pullman
- El despertar de la belleza. Marta de Sterck
- Winnie Pooh. A.A. Milne
- Zesar eta Ernestina (Ernesto eta Zelestina). Gabrielle Vincent /
- Sagu kontuak. Arnold Lobel
- Osaba elefante. Arnold Lobel
- Hartz txiki. Else Holemlund Minarik / Maurice Sendak

## GURASOTASUNA

- Joan den eguneko ipuina. Roberto Aliaga / Noemi Villamuza
- Ama. Mariana Ruiz Johnson
- Eskerrik asko. Charo Pita / Anuska Allepuz
- Algún día. Mo Gutierrez Serna
- Mi pequeño. Germano Zullo / Albertine
- La primera vez que nació. Vincent Cuvelier / Charles Dutertre
- El cuento de la hormiguita que quería mover las montañas. Michael Escoffier / Kris di Giacomo
- La siesta de los Enormes. Pep Bruno / Natalie Pudalov
- Abuelas de la A a la Z. Raquel Días Reguera
- El diario de las cajas de fósforos. Paul Fleischman / Bagram Ibatoulline

# Kaiera

HEZKUNTZARI BURUZ EGUNERO

# Zergatik libururik onenak?

by [Harkaitz Zubiri](#) | Ira 27, 2022 | [Ebidentziak](#)



40 urte baino gehiago joan dira Ramón Flechak Solasaldi Literario Dialogikoak sortu zituenetik. Harrezkero, mila eta bat lekutan baino gehiagotan egin izan dira, eta kopurua etengabe hazten ari da. Luze eta zabal ikertu da haien eragina, testuinguru anitzetan eta askotariko profilekin, eta orain arte egin diren ikerketa guztiek erakutsi dute oso onuragarriak direla, behar bezala egiten direnean, jakina.

Literaturako libururik onenekin egiten dira Solasaldi Literario Dialogikoak. Nola bereiz dezakegu zeintzuk diren libururik onenak? Liburu bati buruzko iritzia erabatekoa denean, hari buruzko zalantzarik ez dagoenean, orduan ondorioztatu dezakegu libururik onenetako bat daukagula esku artean. Esate baterako, *Krimena eta zigorra* irakurri dutenen artean inork jartzen al du zalantzan nobela hori inoiz egin den libururik onenetako bat denik? Irakasle batek zer liburu irakurri behar duten aukeratzeko duenean, zer irizpidek baldintzatzen dute erabaki hori? Merkatuaren

joerak lehenesten ditu? Obrarik onenei buruzko adostasun zabalak hartzen ditu kontuan? Zenbateraino eragiten dio berak zer liburu irakurri dituen eta zein ez?

Solasaldi Literario Dialogikoetan libururik onenak erabiltzen dira. Arrazoiak hamaika dira. Hona hemen horietako batzuk:

1. Ikerketak libururik onenekin egin dira. Baldintza horietan bermatzen dituzte emaitza onenak. Inork libururik onenak erabili nahi ez baditu, libre da, noski, beste liburu batzuk aukeratzeko, baina horiek ez dira Solasaldi Literario Dialogikoak izango, eta ez dute ikerketa horien bermerik izango. Sendagai bat hartzen dugunean, pentsaezina iruditzen zaigu osagairen bat aldatzea. Berdina gertatzen da Solasaldi Literario Dialogikoekin. [Ikerketak frogatu du](#) hizkuntza- eta komunikazio-gaitasunak sustatzen dituela; errespetuzko harremanak sorrarazten dituela, baita laguntasunezkoak ere; elkartasuna eta komunitate-zentzua bultzatzen dituela; eta partaideen ongizate emozionala, autokontzeptua eta autoestimua hobetzen

lagundu dezakeela. Baina, jakina, Solasaldi Literario Dialogiko bat egiten denean gertatzen da hori, osagaiak manipulatu gabe, sendagaiekin gertatzen den bezala.

2. Burmuinean sortzen duten jarduera neuronala sekulakoa da. Esate baterako, [ikerketak frogatu du](#) Shakespeare irakurtzeak ekaitz moduko bat sortzen duela burmuinean. Testuaren aberastasunak eragiten du erauntsia.
3. Libururik onenak irakurtzeak asko laguntzen du besteek zer pentsatzen duten jakiten eta ulertzen. Oso lagungarriak dira mundua hobeto ulertzeko. Bestela ezagutuko ez genituzkeen hainbat pertsona eta egoera ezagutu ditzakegu bertatik bertara eta sakonean. [Ikerketak frogatu du](#) literaturarik onena irakurtzeak sustatu egiten duela gogamenaren teoria (theory of mind, teoría de la mente). Gizakion ezaugarriak bereizgarrietariko bat da. Horri esker jakin ohi dugu besteak zer pentsatzen eta sentitzen duen. Bestearen gogamena deszifratzen laguntzen digun trebezia da. Funtsezkoa da besteekin harreman onak izateko.
4. Aberastasuna banatzeko modu bat da. Gizakiok historian zehar, pixkanaka, hainbat aberastasun metatu ditugu, eta justiziazkoa da altxor horiek jende guztiaren eskura jartzea. Gure ikasleei libururik onenak izkutatuko bagenizkie, oinarrizko giza eskubide bat ere ukatuko genieke: [giza eskubideen deklarazio unibertsalaren 27. artikulua](#) argi eta garbi aldarrikatzen du pertsona orok duela eskubidea artelanez gozatzeko. Non izango du gehiengo zabalak eskubide hori betetzeko aukera? Litekeena da askorentzat ikastetxea izatea aukera bakarra.
5. Guzti-guztiok daukagu aukera libururik onenekin gozatzeko. Ez da egia libururik

onenak soilik gizaki mota batzuentzako modukoak direnik. [Ikerketak frogatu du](#) testuinguru egokiak sortzen ditugunean, guzti-guztiok gozatu dezakegula libururik onenekin. Kontrakoa esaten duenak ziur aski ez ditu libururik onenak irakurri. Bestela, jakingo luke libururik onenek mahaigaineratzen dituzten gaiak bizitzako gai garrantzitsuenak direla, pertsonen artean gaur egun gertatzen diren emozioak eta gatazkak islatzen dituztela, errealitatea islatzen dutela, eta horrelakoak jende guztiari asko interesatzen zaizkiola. Hortaz, matxismotik, klasismotik edo arrazakeriatik ez bada, nekez ukatu daiteke libururik onenak pertsona ororentzat gozamen-iturri izan daitezkeenik.

6. Munduko hamaika herrialdetako literatura ezagutzeko aukera ematen dutelako. Mendebaldekoak dira liburu onenetako asko, baina beste herrialdeetako literatura ezagutzen duenak badaki libururik onenak, Mendebaldean ez ezik, herrialde arabiarretan, Indian eta Txinan ere ez direla bakanak, zenbait adibide aipatzearren. Mendebaldarrek liburu horiek ez ezagutzeak ez du esan nahi liburu horiek existitzen ez direnik eta libururik onenen artean sailkatu behar ez direnik.
7. Idazle bikainak sortzeko ezinbesteko baldintza da. Idazle onenetako askok profil jakinak dituzte (gehienetan gizonezkoak, maila sozial altuetakoak, eta etnia boteretsuetakoak). Zergatik? Idazle bikain bihurtzeko baldintza egokienetan bizi izan zirelako. [Ikerketak frogatu du](#) libururik onenak irakurtzea funtsezkoa dela etorkizunean goi-mailako idazle bihurtzeko. Guk orain hemen gure ikasleei testuinguru egoki horiek ukatzen badizkiegu, etorkizunean haiek ere ezin izango dute lortu beste batzuek eskura izango dutena.

Historian zehar ohikoa izan da: emakumeei, maila sozial apalenekoei eta baztertutako etniei ukatu egin zaie kultura jasorako sarbidea. Guk

orain gure ikastetxeetan bidegabekeria hori gaintzeko aukera daukagu.

Egilea: Harkaitz Zubiri

## Sormena nola sortzen den

by [Harkaitz Zubiri](#) | Mar 9, 2021 | [Ebidentziak](#)



Maiz

entzuten da sormena garatzeko aukerak eman behar zaizkiela umeei. Beraz, komeni zaigu hori nola egiten den jakitea. Baten batek pentsa lezake sormena besterik gabe pertsona indibidual baten baitan ekoizten dela, besterik gabe barrutik datorren jarioa dela, norbanakoaren baitan besterik gabe loratzen dela. Baina sormena ez da besterik gabe gertatzen. Batetik, ikerketak garbi erakutsi du sormena askoz aberatsagoa dela sortzaileen arteko interakzioa intentsoagoa denean eta haien artean laguntasun-harremana dagoenean. Mundu-mailan ezagunak diren adibide asko daude: [pintore inpresionista frantsesak](#), [poeta erromantiko ingelesak](#)...

Landare bat haz dadin ezinbestekoak ditu eguzkiaren argia, tenperatura egokia, hezetasuna, airea eta elikagaiak. Hau da, landare batek asko jasotzen du, kanpoko osagai asko bere egiten ditu, hazi ahal izateko. Gizakion sormenerako, ahalmena ez da gutxiago. Elikatu beharra dago, eguzkiaz gozatu, giro egokian murgildu. Elikagai, eguzki eta giro horiexen bila zebilen [Cambridgeko Unibertsitateko Morag Styles](#), eta horregatik aztertu zuen *Mila eta bat gauak* obrak zenbaterainoko eragina izan zuen azken bi mendeetako idazle prestigiotsuengan. Izan ere, hamaika dira ingelesez *Arabian Nights* izenez ezagutzen den obra hori

publikoki miretsi duten idazleak: Dickens, Brönte ahizpak, Stevenson, Joyce, Woolf... Sherezade da literaturako pertsonaia feminista nabarmenenetako bat. Narrazioen bidez liluratzeko daukan gaitasunari esker salbatzen du bere bizia eta beste hainbat neskarena. Ausardiak, elkartasunak, lilurak eta hasieratik atxikitzen zaituzten narrazioek harilkatzen dute obra. Umetan *Mila eta bat gauak* irakurtzea funtsezkoa izan zen makina bat idazlerentzat. Publikoki aitortzeko beharra izan zuten askok. Baina, jakina, *Mila eta bat gauak* obrak ez zien bakarrik idazleei eragin.

Irakurtzea plazera izan behar da. Haurrak liluratu egin behar dira. Horretarako, denbora nahikoa eskaini behar zaio irakurketari, eta, horrez gain, oso gogoan izan behar dugu funtsezkoa dela plazera helburu izatea. Liburu gure bizitzekin lotzeko baldintzak eskaini behar zaizkie haurrei eta nerabeei, horrela ikasleek liburuaren zentzua beren bizitzaren arabera eraikiko baitute, beren pentsamenduen eta sentimenduen arabera, beren irudimenaren arabera, eta horrela izango baitute liburuarekin gozatzeko aukera.

Erraz ezkontzen dira liburuekiko lilura, hizkuntzen ikaskuntza eta alfabetatzea. Erraz ezkontzen dira baldin eta nola ezkontzen diren badakizu. Kaietan askotan azaldu digute: fundamentuz egiten diren Solasaldi Literario Dialogikoek sekulako ahalmena dute. Alfabetatze-prozesuak ez du zertan plazeraren kaltetan izan. Liburu onenak bereziki lagungarriak dira. Zertarako irakurri erdipurdikoko liburuak, liburu onenekin gozatu badezakegu? Erdipurdikoko liburuak ez gaituzte

pizten liburu onenek piztu gaitzaketen neurrian, ezta hurrik eman ere.

Nola liluratu, nola ikasi hizkuntza, nola alfabetatu liburu onenak irakurriz? Styles-ek hiru gako aipatzen ditu: praktika, plazera eta persistentzia. Eta umetatik hasia. Hori guztia eraginkorragoa da interakzio aberatsen testuinguruan.

Inork ezagutzen al du idazle onik sutsuki irakurtzen ez duenik? Zinema-zuzendaririk urtetan etengabe pelikulak ikusten aritu ez denik? Dantzari bikainik urtetan entseatzeko orduak eta orduak pasatu ez dituenik? Sormena, jakina, ez da ezerezetik sortzen. Sormena aberastasunetik jaiotzen da, geure egin dugun kulturaren aberastasunetik. Haurren edo nerabeen sormena sustatu nahi duenak ezinbestean moldatu beharko ditu baldintza egokiak haur eta nerabe horiek kultura-sorkuntza aberasgarrienarekin gozatu dezaten. Horixe da, hain zuzen, sormena garatzeko aukerak ematea.

Egilea: Harkaitz Zubiri

# Zer egin dezakete gurasoek umeei irakurtzen ikasteko prozesuan laguntzeko?

by [Ane Lopez de Aguilera](#) | Aza 10, 2022 | [Ebidentziak](#)



Irakurtzen ikastea prozesu konplexua da, trebetasun ugari biltzen dituena. Ume gehienek irakurtzen ikasten dute eskolako hezkuntza formalarekin hastean. Ikerkuntza zientifikoak erakutsi du, irakurtzen ikastean eragina duten faktoreen artean, ume txikiek etxeetan edo hartzaindegian eskuratutako trebetasunek garrantzi handia dutela. Testuinguru honetan, zein da gurasoen parte-hartzearen eragina umeei irakurtzen ikasteko prozesuan?

Gai hau [Sénéchal eta Lefevre](#) ikerlariek aztertu dute, 5 urteko iraupeneko luzetarako ikerketa baten bidez. Haien egindako azterlanak hiru helburu izan zituen. Lehenengo helburua gurasoen eta seme-alaben artean bi jardura desberdinek duten garrantzi erlatiboa ebaluatzea izan zen: ipuinak irakurtzea eta gurasoek irakaskuntzari buruz egindako txostenak, haurren hizkuntza hartzailearen alderdiak garatzeko eta alfabetatze berria egiteko. Bigarren helburua alfabetatze-

esperientzia goiztiarren eta ondoren irakurtzen ikastearen arteko erlazioa ebaluatzea izan zen. Hirugarren helburua alfabetatze-esperientzia goiztiarren eta irakurketaren arteko erlazioa ebaluatzea izan zen. Hiru ume-talde, hartzaindegiko bi ume-talde eta 1. mailako haurren talde bat izan ziren azterlanean. Hiru haurren taldeek 3. mailara arte jarraitu zuten ikerketan.

Emaitzen artean, ipuinen irakurketa haurren hizkuntza hartzailearen garapenarekin lotu zen, eta gurasoek hezkuntzari buruz egindako txostenak, berriz, haurren alfabetatze goiztiarreko gaitasunekin lotu ziren. Hala ere, ipuin-liburuen eraginpean egoteak ez zituen haurren alfabetatze-trebetasunak iragarri. Beraz, ikertzaileek iradokitzen dute gurasoen edota senide nagusiagoren baten gida garrantzitsua dela umeen alfabetatze-trebetasunak garatzeko.

Zeintzuk dira ikerkuntza honen inplikazioak guraso eta irakasleentzat?

Irakasleek gomendatu dezakete gurasoek seme-alabei irakur diezaietela horiek deskodetze-trebetasunak bereganatzen epe luzera, hiztegia eskuratzeko eta irakurketa ulertzeko.

hasi baino lehen eta ondoren; izan ere, hizkuntza hartzailearen garapenaren aurrerapen goiztiarra prediktiboa da  
Egilea: Ane López de Aguilera